



18

Hiruhilabetekaria
urtaria-otsaila-martxo

2012

j
k
uz

kanpo



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundeak
Instituto Foral
De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA



- 1 Artikulua
“Euskal Herriko Autonomia erkidegoko 2011-2015 mendekotasunaren VI. plana onartu da”
- 2 EAE-ko mendekotasunaren VI. plana eta Joko Patologikoa
- 3 Arazoa duen pertsona baten testigantza
“Ludopatiak sorrarazten duen errealtate etsigarria”
- 4 Hiritarren erantzuna
“Substantziarik gabeko mendekotasunak”
- 5 Hiriko eta probintziako baliabideak
“Droga-mendekotasunaren prebentziorako zerbitzua”
- 6 Balorazioak
“Hiruhileko onena eta txarrena”
- 7 Gomendioak
“Gomendatutako liburua eta DVDA”
- 8 Iritziak

Argitaratzailea: ASAJER. Erreabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte

Laguntzaileak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Arabako Foru Aldundia), Osasun eta Kontsumo Saila (Vitoria-Gasteizko Udala) eta Euskadiko Kutxa

Argazkiak: Asajer

Diseinua: ERDU

maketazioa: KOMUNIKA DIGITAL 2.0

Itzulpenak: Higan Itzulpen Zerbitzuak

Inprimatzailea: Vicuña Grafikoak

Lege-Gordailua: VI - 356 / 07

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko 2011-2015 Mendekotasunaren VI. Plana onartu da

GOBERNU-BATZORDEAREN 2011/12/13KO AKORDIOA

2011ko abenduak 13

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko 2011-2015 Mendekotasunaren VI. plana onartzeko akordioa.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko 2011-2015 Mendekotasunaren VI. Plana zeharkakoa eta bateratzailea da, orain arte droga-mendekotasun arloan egindako esku-hartzeak hedatu eta hobetzeko asmoa duena.

Berrikuntza nagusi gisa, azpimaragarria da esku-hartzearen subjektu modura substantziarik gabeko mendekotasunak bameratzen direla, bereziki ludopatia (gizartean tasa adierazgarria agertzen duena). Halaber, prebentzio-neumiak hartzeko premia sendotzen da, kontuan izanik bereziki zaurgamiak diren eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan diren pertsonen eta taldeen arrisku eta kalteak.

Azken azterketek mendekotasuna pairatzen duten pertsonen kolektiboa heterogeneoa dela erakusten dute. Iraganean alkohola izan zen arazo nagusia, hirurogeiko hamarkadan heroina-kontsumoa etorri zen, eta ondoren kokainaren arazoa. Horenbestez, egun kontsumo-aniztasuna dagoela esan daiteke. Gaur egun, gaixoen artean gero eta aruntagoa da bi patologia hautematea. Gainera, tratamendu-eskaeraren barruan anfetamina eta cannabiaren erabilera gero eta handiagoa da. Planean kezka azaltzen da alkohol-kontsumoarekin hasteko adinak behera egin duelako eta tabako-kontsumoia murriztera bideratutako politikak sustatzen jarraitzeko premia azpimaratu da. Gainera, aisiarekin lotutako kontsumoaren igoera apal bat hauteman da eta hori arriskutsua izan daiteke aurrera begira arazoak sor ditzaketen kontsumoetara jotzea ekar baitezake.

Mendekotasunaren VI. Planean kontuan izan dira aurretiko droga-mendekotasunerako planetan tradizionalki aintzat hartutako kolektiboak. Horretarako, Prebentzio Unibertsala bultzatu da hainbat kolektibotan, besteak beste, haurengan, gaztetxoengan eta ikasleengan. Haatik, aintzat hartu dira zaurgamiagoak diren kolektiboak eta horiei prebentzio programa selektibo edo jakin bat aplikatuko zaie, izan ere, kolektibo horietan gertatzen dira mendekotasunarekin lotutako arazo gehienak.

Planak oinarritzko hiru estrategia ditu zutabetzat: eskaintzaren kontrola, eskaeraren murrizpena eta profesionalen babesa. Hortik abiatuta hainbat esku-hartze sorta diseinatzen dira, 25 programatan antolatzen direnak. Horrela, orotariko esparruak bameratzen dira, esate baterako, erabileran hasi ez diren pertsonen prebentzioa edota mendekotasunaren ondorioz gizarte-bazterkeria nabarmena pairatzen duten pertsonen arreta.

EAE-ko Mendekotasunaren VI. plana eta Joko Patologikoa

Duela hogeitau urte inguru Eusko Legebiltzearan ludopatia garai hartan Tokikomania-plan izena zuen planean txertatzeko saiakera egin zen. Proposamena atzera bota zen, mendekotasun horretan substantziarik ez zegoela argudiatuta. Beranduago, izena aldatu eta Droga-mendekotasunaren Plana izendatu zen. Azken edizio honetan (2011ko abendua) ludopatia EAE-ko 2011-2015 Mendekotasunaren VI. planean bameratu da. Horrela, substantziarik gabeko mendekotasunak ofizialki aitortzen dira, portaera jakin bat izatea (horrek oso ondorio kaskarrak dituen arren) eragiten duen mendekotasuneko jokabidea azpimarratuz, eta substantziadun mendekotasunetan agertzen diren sintomekin halako antzekotasun bat onartuz.

Planean hiru ildo estrategiko daude eta orotariko esparnuak bameratzen dira, esate baterako, erabileran hasi ez diren pertsonen prebentzioa nahiz mendekotasunaren ondorioz gizarte-bazterkeria nabarmena pairatzen duten pertsonen areta.

1. Eskaintzaren kontrola:

- Jokoa kontrolatzea (jokatuko den diru-kopurua mugatzea, etab.)
- Jokoa aurrean zaurgarriak diren pertsonak babestea (adinez txikikoen sarrera kontrolatzea, auto-debekuak, etab.)

2. Eskaeraren murriztapena:

- Tratamendu terapeutikoarekin osagarri. Substantziarik gabeko mendekotasunak (ludopatia, etab.) asistentzia-eskaintza publikoan txertatzea (Osakidetzatik bideratutako tratamendua, etab.)
- Gizarteratze eta gizarte-txertatzea (gizarte-bazterkeria nabarmena pairatzen duten mendekotasundun pertsonen oinarriko premiak asetzea, gizarteratze-prozesuen aldeko neurriak, etab.)

3. Koordinazioa (sailen artekoa, instituzioen artekoa eta EAE-ko beste plan batzuekin), ikerketa eta profesionalen laguntza ahalbidetzea (osasun arloko prestakuntza, Joko Patologikoarekin lotutako prebentziarako, ariskuak ekiditeko eta diagnosis egiteko).

Honatz Joko Patologikoarekin eta beste mendekotasun batzuekin lotuta plan honetan planteatzen diren hainbat helburu:

- Hentiar guztiak aktiboki inplikatzea.
- Mendekotasunari buruzko VI. plana beste plan batzuekin uztartu eta atxikitze aukera behatzea.
- Eskaintza eta eskaria murriztea.
- Droga maiztasunez erabiltzen duten eta substantziarik gabeko mendekotasunak dituzten pertsonen kopurua murriztea.
- Patologia bikoitzen arreta hobetzea.
- Droga-mendekotasunarekin eta substantziarik gabeko mendekotasunekin arazoak dituzten pertsonen gizarte-baldintzak hobetzea.
- Substantziarik gabeko mendekotasunekin lotutako tratamenduak areagotzea.
- Ikerketa bultzatzea informazioa eta orientabidea hedatzeko, droga-mendekotasun eta substantziarik gabeko mendekotasun arloan erabaki egokiak har daitezkeen.
- Profesionalen prestakuntzan hobetu eta ziurtatzea.
- Programa eta esku-hartzeen ebaluazio sistematikoa sustatzea.
- Tratamendu berriak egiaztapen zientifikoak eginez aztertzea.
- VI. planean sustatzen diren esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko ahaleginean aurrera egin eta sakontzea.
- Talde eta pertsona zaurgarriak zuzendutako prebentzioa sustatu eta garatzea (prebentzio selektibo izendatzen dena)

(Ludopatia plan honetan txertatzea urrats garantzitsua da arazoa gainditzeko).

arazoa duen pertsona bat

LUDOPATIAK SORRARAZTEN DUEN ERREALITATE ETSIGARRIA

Denak balio du? Gizarteari arreta eman nahi nioke kezkgarria den (norberari nola eragiten dion) eta sarritan pertsona galbidera eraman dezakeen (eta ondorioz senitartekoaren gainbehera) gai baten inguruan. Ludopatiatz ari naiz, medikuek aspaldidanik gaixotasun gisa aitortu zutena, alkoholismoarekin edo droga-menpekotasunarekin gertatzen den moduan.

Eragindako pertsonak jokatzeko grina kontrolaezina sentitzen du eta eskuragari dituen baliabide guztiak baliatzen ditu jokatzeko. Horren ondorioz, oso larriak eta zoritxarrekoak diren egoerak sortzen dira, izan ere, kontrola galtuta daudenean edozein lekutik hartzen dute jokorako dirua.

Gastezko ASAJER elkarteak informazio zabal bezain etsigarria eman dezake esaten ari naizenaren inguruan. Samitan gertatzen da Ausazko jokoen sektoreko enpresetan lan egiten dutenek gehiegikeriaz tratatzen dituztela aipatu ditugun pertsonak. Uste dut hori gertatzen dela ez dakitelako zein pertsonak pairatzen duen gaixotasun hori. Adibide bat jarriko dut: inori zentzuzkoa iruditzen al zaio halako nahasmenak dituen pertsona bati kreditu bidez jokatzeko aukera ematea “ordainduko dizut” esanez?

Sen onak gertatzen ari dena normala ez dela dioskunean uste dut zuen betebeharra dela, moralki bederen, salmentaren hartzailea nor den jakiteko interesa izatea. Zuen jomala zintzoki irabazten duzue, hala da. Baina badago alderik joko ludikoaren eta kontrolatu gabearen artean, hautematen horren zaila ez dena. Pentsatu alkoholiko bati nahi zukeen edari guztia salduko baliote. Ia delitua litzateke, hori esaten duen legenik ez badago ere, izan ere, haren bizitza arriskuan jarriko litzateke. Horrenbestez, legezkoa bai, baina moralki ez litzateke onargarria izango.

Gizartea guztion artean eraikitzen dugu eta borondate on apur batekin hobetu egin dezakegu, besterik ez bada “gaur niri, bihar zuri” esaera zaharra aintzat hartuz.

Eragindun baten emaztea

erantzuna

SUBSTANTZIARIK GABEKO MENDEKOTASUNAK

- 1 Badakizu zer diren substantziarik gabeko mendekotasunak edo mendekotasun ez-toxikoak?
- 2 Jakingo zenuke bat aipatzen?
- 3 Substantziarik gabeko mendekotasuna substantzia batekiko mendekotasuna (alkohola, kokaina, etab.) bezain kaltegarria izan daiteke?
- 4 Ezagutzen duzu substantziarik gabeko mendekotasunik pairatzen duen inor?
- 5 Entzun al duzu ezer EAEko Mendekotasunaren VI. Planari buruz?

24 urteko gizona, Gasteiz

1. Bai.
2. Joko, Internet eta teknologia berriekiko mendekotasuna.
3. Ez zaizkit horren kaltegarriak iruditzen.
4. Bai, ezagun bat.
5. Ez dut deus entzun.

47 urteko gizona, Arabar Errioxa

1. Bai.
2. Ludopatia.
3. Bai, substantziarik gabeko mendekotasunak bezain kaltegarriak iruditzen zaizkit edo, are kaltegarriagoak.
4. Ez.
5. Ez.

20 urteko emakumea, Gasteiz

1. Bai.
2. Ludopatia, Internet, etab.
3. Bai, gehiago agian, hautematen zailagoak baitira.
4. Ez dut inor ezagutzen.
5. Ez dakit deus horri buruz.

hiriko eta probintziakoak

Droga-mendekotasunaren prebentziorako zerbitzua.
"DEMSAC" Osasun publikoko saila. Gasteizko Udala.

Droga eta bestelako mendekotasun batzuei buruzko informazio-eskaera.

Deskribapena:

Berehalako arreta- eta informazio-zerbitzu bat eskaintzea, telefono bidez edo bertatik bertara, drogekin eta portaerazko bestelako mendekotasun batzuekin lotutako alderdien inguruko orientazioa nahiz aholkularitza eman eta gai horietan programazioak burutu edota esku hartzeko.

Unitate arduraduna:

Ingurumen-osasun Zerbitzua

Izapidetze-lekua:

Droga eta mendekotasunei buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzua, San Vicente aldapa z/g

Hareman zuzenerako telefonoa:

945161753.

Nork:

- Gasteizko herritarak orokorrean.
- Institutuzioak, taldeak, entitateak eta elkarteak.

Hiruhileko onena

Oso positiboki balioesten dugu Autonomia Erkidegoko kasinoen araudi berria, Euskadin joko-kasinoen sektorean egiten den lehen arautze osatua baita, orain arte 1979ko estatuko araudiaren baitan arautzen baitziren.

Kasinoen arautze osatua da, alderdi guztietan: jokalarien eskubide, betebeharrak eta muriztapenak, adinez txikikoen eta ludopatia-arazoak dituzten pertsonen babesa, jokorako lokalen plangintza, baimendutako jokoak eta horien baimentze-erregimena.

Euskadiko kasinoetako enpresa titularrak joko arduratsua hedatzeko ahaleginean murgildu beharko dira. Hala, eskaintzen dituzten jokoei eta haietan gehiegikeriaz aritzeak eragin ditzakeen kalteei buruzko informazioa eman beharko diete bezeroei.

Hiruhileko txarrena

Negatiboki nabarmendu behar da zenbait autonomia-erkidegok beren eremuan Eurovegas joko-multzoa instalatzeko erakutsi duten lehia eta ludopatiaren aurrean erakutsi duten sentsibilizazio urria, etekin ekonomikoak lehenetsiz osasunarekin lotutako gaien gainetik.

Sustatzaileak hainbat lege aldatzea behartuko luke eta, jokoari dagokionez, hauek dira eskatzen diren baldintzak:


- Kasinoetan adinez txikikoei eta ludopatei sarrera baimentzea. Gainera, lokal barnean erretzea zilegi litzateke.
- Madrileko Komunitateko Jokoaren Legea aldatzea "junket" delakoaren irudia sartzeko (jokalaririk hautemateaz arduratzen diren persona edo taldeak eta lan egiten duten kasinoetan komisioz kobratzen dutenak, oso baldintza onetan eta sarritan zergak ordaindu gabe) eta VIP jokalarientzat apustuak egiteko sistema bereziak bameratzeko, jokalaririk horiek baitira Macaoko multzoan etekin handiena ematen dutenak.
- Kreditu bidez jokatzeko baimena ematea (egungo legerian erabat debekatuta dago hori, eta isunekin zigortzen da) eta Estatuko Prozedura Zibilarren Legea aldatzea, jokotik eratomitako zorren exekuzioari dagokionez.

gomendatutako liburuia

SOS... TENGO UNA ADICCIÓN

Egilea: Molina del Peral, Jose Antonio
Argitaletxea: Ediciones Pirámide
Hizkuntza: Espainiera / Gaztelania
Argitaratze-data: 2011/12/02

Las osatu eta zorrotza da, baina oso modu erraz eta ulergarrian idatzita dago. Egileak hamabost urte baino gehiago eman ditu mendekotasunaren alorean lan egiten esperientzia klinikoen ikuspuntutik eta esperientzia horren ondorioa da liburuia. Eskuliburu oso praktikoa da, hainbat kasu aipatzen dira etengabe, gaixo eta senitartekoen testigantzez osatuta. Homi esker, irakurleak hobeto ulertu ahal izango ditu mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen igarotzen dituzten prozesuak. Bakoitzak (gaixo, senitarteko edo terapeuta modura) arazoa ebazteko gomendioak topatuko ditu liburuan, bakoitzak bere buruari nola lagundu jakiteko edo senitarteko bati laguntzeko nola jardun ikusteko. Profesionalentzat liburu paregabea da mendekotasunaren alorreko ezagutzak sakontzeko.



gomendatutako dveda



CUANDO UN HOMBRE AMA A UNA MUJER ES PARA SIEMPRE

Zuzendaria: Luis Mandoki

Herialdea: AEB

ekoizpen-urtea: 1994

Antzezleriak:

Andy García , Meg Ryan, Ellen Burstyn, Tina Majónino, ...

Generoa: Drama, Erromantikoa

Michael (Andy Garcia) eta Alice (Meg Ryan) senar-emazte ginatsuak dira, bi alabekin batera familia batu bat osatzeko borokatu dutenak. Hala ere, Alicek iraganeko sekretu bat gogora ekartzen duenean mina agertzen da: alkoholerako joera. Michael bere eskuetan dagoen guztia egingo du gainbeheran doan familia desegin ez dadin, izan ere, badaki gizon batek emakume batekiko izaten duen maitasuna, betiko izaten dela.

Iradokizuna
edota iritzien

postontzia

ASAJER-en badakigu pertsona bat nahasita sentitzen dela gertuko senitarteko batek ludopatiarekin lotutako arazo bat duela jakiten duenean. Baina, zer da hori? Bizio bat? Makina batek harrapa zaitzake? Hori egiten duzu gogoak ematen dizulako?

Horregatik, elkarteak mintegiak antolatzen jarraituko du galdera guztiak erantzuteko.

Jokoarekin arazoak dituen senitartekoren bat duzuen pertsona guztiak laster antolatuko diren SENITARTEKOENTZAKO MINTEGIETAN parte hartzera adoretzen zaituztegu.



Animatu
eta idatzi!